



Federiko
Baraibar
Zumarraga

1851-1918

BIDeGILEAK

Egilea:
Miel A. Elustondo



FEDERIKO BARAIBAR ZUMARRAGA

(1851-1918)

Arabar agintari euskaltzalea

Federiko Baraibar Zumarraga Gasteizen jaio zen 1851n eta bertan hil 1918an. Zuzenbidean eta Filosofia eta letratan lizentziatu zen. Gasteizko Institutuko zuzendari eta latin katedraduna, Arabako diputatu nagusia eta Gasteizko alkatea izan zen. Idazle oparoa zen; gai desberdinak landu bazituen ere, arkeologia eta hiztegi gintza alorretan egindako ikerketetan nabarmendu zen. Espainiako Historiako Erret Akademiako kidea izan zen. Arabako gaztelanian gelditu diren euskal hitzen gordailua aztertu zuen. *Vocabulario de palabras usadas en Álava y no incluídas en el Diccionario de Real Academia Española* (1903) liburua eta beste hainbat artikulu kaleratu zituen. Diputatu nagusia zelarik, bera mintzatu zen euskaraz, Araban lehen aldiz, hitzaldi ofizial batean.



Gasteizko Institutua, 1843an irekia. Egun, EAEko legebiltzarra

Ez da oraingotxea Federiko Baraibarri buruz eginik dagoen biografiarik mardulena. Berez, artikulua bat baino ez da, Odon Apraizek Julio Urkixoren eskariz idatzi eta 1920an RIEV (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) aldizkarian argitaratu zuena, «Don Federico Baraibar y los estudios vascos» izenburupean. Artikuluaren egileak, Baraibarrekiko zortzat hartu zuen haren biografia idaztea, kontuan harturik gure bidegilea RIEV aldizkariaren kolaboratzaileetako zela. Odon Apraizen arabera, ordu artean Baraibarri buruz argitaratu zen apurrak ez zuen omenaldi balio handirik, «eta kritikari dagokionez, batere ez du balio.» Horiek esanik, Odon

Apraiz bera lotu zitzaion Baraibarren berri emateari...

Federiko Baraibar Zumarraga 1851n jaio zen Gasteizen. Lehenengo, Zuzenbide ikasketak egin zituen Zaragozako unibertsitatean. Doktoregoa ere egin zuen. Ondoren, Filosofia eta Letrak ikasketak egin zituen Gasteizko Unibertsitate Librean. Dakigunez, 1871n jaioterriko unibertsitatean ari zen lanean, irakasle interinogisa. 1876an, berriz, latin katedraren jabe egin zen Gasteizko Institutuan, 1843an ireki zuteneko hartan, alegia.

Garai hartako, abiatu berria zen Gasteizko Ateneoa ere, eta Baraibarrek bertan

egin zituen lehenengo hitzaldiak, 1870 inguruan, erromatar Espainiari buruz, hain zuzen ere. Urte horretan bertan, Letrak arloko idazkari izendatu zuten eta, ondorioz, behin eta berriz ageri da haren izena elkartearen *El Ateneo* aldizkarian, bai eta bertako irakasle taldeetan ere. Kultur elkartearen idazkari nagusi aukeratu zuten gero, eta Ateneoko lehendakari 1875ean. Era berean, Jove Catalunya elkarteko kide urgazle izendatu zuten eta *El Ateneo* aldizkaritik harremanak izan zituen katalan berpizkundearen hastapenean *La Renaxensa* aldizkari ezagunarekin.

Federiko Baraibarren lehenengo lana Aristofanesen obraren itzulpenak izan ziren, grezieratik gaztelaniara zuzenean egin-dako itzulpena, hain justu.

Hogeita bost urte ere ez zituen, beraz, lehenengo obra hori itzuli zueneko. Gazterik hasi zen hizkuntza eta literatura ikerketa klasiko eta modernoak egiten eta, azkenean, berrogei lan baino gehiago argitaratu zituen. Bestalde, argitaraga-beak ere ez ziren gutxi izan... Odon Apraizi jarraiki, alde edo moldez Euskal Herriari loturiko lanez ariko gara ondoko lerrootan.

ALAH



Federiko Baraibar
Zumarraga,
gaztetxotan

ALAH




Arabar agintari euskaltzalea

ALAH



Latin katedraduna izan zen
Gasteizko institutuan

GUAA



Lehenengo lana,
Aristofanesen obraren
itzulpena

Arkeologia

BARAIBAR, AITZINDARI

Arkeologia arloan, aitzindari dugu Baraibar Araban, berak abiarazi baitzituen lurraldeko historiaurreari dagozkion ikerketak. Adibidez, berak jardun zuen, beste inor baino lehen, Arrizalako dolmen edo

trikuharriari buruz. 1879ko abuztuaren 25ean ikusi zuen argia dolmen horren gaineko albisteak Bilboko *Irurac-bat* egunkarian. Handik bi urtera, lan bat osoagoa kaleratuko zuen *Euskal-Erria* aldizkarian: «Los Dólmenes alaveses.»



«Los dólmenes alaveses»,
Euskal-Erria aldizkarian Arabako
trikuharriak aztertu zituen



Arrizalako trikuharria,
Baraibarrek aztertu
zuenetako bat

Erromatar arkeologiari buruzko lan bat ere badu Baraibarrek trikuharrien gaine-koa baino handiago eta sakonagoa. 1882ko azaroaren 9an Gasteizko Zientzia, Literatura eta Arte Ateneoan egindako hitzaldia da. Bertan, Iruñaren antzinatasunaz dihardu, Araban erromatar arkeologiaz ordu artean egindako lanak laburbildu eta, datu horietan oinarrituz, batetik, eta testu klasikoaren gaine-ko ezagutza baliatuz, bestetik, garai hartako Arabaren egoera zertan zen azaltzen du. Hitzaldi honetan bertan, hainbat ohar bibliografiko, epigrafiko, nu-

mismatiko eta linguistiko ere egiten ditu. Hizkuntzazkoei dagokienez, euskarari eta zeltikoari buruz ari da, esanez, zeltikoa dela, izan, Arabako mendebaldeko (Karis-tia eta Autrigonia) lehenengo sedimentu etnikoa.

Baraibarrek sekula ere ez zuen ikerketa lerro hau utziko eta, 1883an, Espainiako Historia Akademiako urgazle izendatu zutenean, Iruñako inskripzioen kalkoz-ko erreprodukzioa egiteko agindu zioten. Agindu eta hiru urtera, Baraibarrek Akademia haren esku utzita zeukan eragin-



Erromatar arkeologia, Baraibarren beste lan-lerro bat

dako lana. Azterketok, bestalde, beste zenbait ikertzailereren lana erraztu edo bideratu zuten. Fitak, adibidez, Baraibarren txostenak hartu zituen abiapuntu, erromatar epigrafiari buruzko zenbait azterketa burutzeko.

ERROMANIKOA ARABAN

Ikerketa lerro berean, arte erromanikoak Araban dituen adierazpideak ere ikeritu zituen Baraibarrek. Besteak beste, Armentiako basilikaren inguruko alderdi epigrafiko eta artistikoak. Aipagarri da, era berean, *Federico Baraibar - Rincones artísti-*

cos izeneko argitalpena, Arabako bi tenplu erromanikori buruzko lana, 1914koa. Lan honek biren balioa duela esan genezake, F.F. Mendozak hari buruzko kritika plazaratu baitzuen *Euskalerrriaren alde* aldizkarian 1915. urteko alean, non aipatu Mendozak Federiko Baraibarrek Gaubean egindako zenbait ikerketa dituen aipagai, Baraibarren beraren zenbait lan argitaragabe aipatu ere egiten ez direnak! Lan argitaragabe horri dagokionez, esan dezagun, arte erromanikoak Araban dituen monumentuen inbentario ondo hornia dugula, hau da, *Inventario del Románico en Álava. A la Real Academia de*

Bellas Artes de San Fernando, 1911ko lana. Akademia haren artxiboetan irauten zuen lan horrek, artean 1920an, Odon Apraizek dioenez. Lanaren garrantzia ere ez da baitezpadakoa, arkeologia espainiarak ukatu egiten baitzuen bi monumentu erromaniko baino gehiago izatea «euskal probintzia guztietan». Dena dela, izan zen Baraibarren lan argitaragabeaz zuhurki jabetu zenik, estatuak Cristobal Castro-ri agindu zion Arabako monumentuen katalogo ofizialera aldatu baitzituen egile honek, Castrok, 1915ean, Baraibarrek lau urte lehenago burututako ikerketaren emaitzak. Odon Apraizek Baraibarren lana goraipatzen du, esanez Castrok erromanikorik katalogatu ez duen hamabost herritan Baraibarrek aurkitu duela aztarnarik. Bestalde, Baraibarrek darabilen dokumentazio grafikoa Castrok agertzen duena halako bi da. Azkenik, Odon Apraizek dioenez, «alderdi literarioa ez dago konparatzerik ere». Eta honen azken juzkua, Baraibarren lan garrantzizko honi dagokionean: «Arte Eder akademiak lan hau berehalako batean argitaratu ezik, Eusko Ikaskuntzak interes berezia agertu beharko luke».



Arabako erromanikoari buruzko lanik ere idatzi zuen Baraibarrek

Odon Apraizen iritziko, erromanikoari buruzko lana ez dago osatua. Jakitun da horretaz Baraibar bera, inbentarioa egiten zein eta zein herritan jarraitu beharko litzatekeen adierazten baitu. Saiatu ere saiatu zen osatzen, Gaubean eta bestetan, eta osatuko ere zuen, heriok hartu eta eraman izan ez balu. Lan hauen sintesi oinarria ageri da Baraibarren beste lan batean; hau da, *Museo Incipiente. Suplemento á la Memoria del curso de 1911 á 1912 en el Instituto General y Técnico de Vitoria* izenekoan.



Gasteizko
Ateneoaren
1892ko
memoria.
Bertan jardun
zuen Federico
Baraibar
gazteak

EUSKAL-ERRIA ALDIZKARIA

Baraibarren arkeologia lanek izan zuten irakurlerik. Horrela ulertu behar dugu 1891n Antonio Arzak donostiarrak *Euskal-Erria* aldizkarian argitaraturiko olerkia: «Mendiko alaba. (On Federico Baraibar jaunari)». Bestelako adiskidetasunik gabe ere, konplizitatea erakusten du, bederen. Bata, Arabako mendietan ziren trikuharri eta, oro har, artea biltzen. Bestea, mendian ikusiak paperera era erromantikoan ekartzen.

«Mendiko alaba»

Mendiyan	ta etzan
bizi zan	geiago
txabolan,	izandu
bildotxen	beretzat
onduan	pozarik,

Zer pozez	ta uda
udaran,	berria
garotan	gozoro
saltoka	etorri
soruan!	zanian....

Zer triste	a!... ill zan
neguan,	goiz eder
elurra	batian,
datorren	bordatxo
orduan!	zarrian!

Bildotxak	Onela
gosiak	pasa zan
illikan,	mundutik,
geldi zan	bildotxak
bakarrik,	maiterik!



Hiztegigile

Federiko Baraibar,
arkeologo, hiztegigile, humanista...

GUA

Mende hasieran Araban pil-pilean zegoen euskaltzaletasuna; gazteen artean, batik bat. Ateneoan bertan euskarazko ikastaroak ere antolatu izan ziren... Giro horretan, arkeologia lanak beste ate bat irekiko zion Federiko Baraibarri. Araban zehar ezkutaturik zegoen arte altxorra argitara ekartzearekin batera, berealdiko arreta eman zion herrian herriko hizkerari. Hain segur, ordu arte hizkuntzalarik egin ez zuen modu xehean. Lan eta begiramen horren ondorio landua da 1903an plazaratu zuen lan mar-dula: *Vocabulario de palabras usadas en Álava y no incluídas en el Diccionario de la Real Academia Española (Décimo-tercia*

edición) ó que lo están en otras acepciones ó como anticuadas. 328 orrialdetan, alde z aurretik ikasitako guztiak hustu zituen; bertan aplikatu zituen ikasketa klasiko en irakaspenak; bertan aplikatu Erdi Aroari buruzkoak; bertan jarri zuen, azken finean, Euskal Herriari zion maitasun handia.

EUSKARAZKO HITZAK ARABAKO GAZTELANIAN

Vocabulario de palabras... horretan Arabako gaztelanian erabiltzen ziren euskarazko hitzak bildu zituen Baraibarrek. Esan beharrik ere ez dago, honenbestez, euskal jatorrikoak direla gehien-gehienak.

GUA




Herrian herriko hizkerari arreta eman eta osatu zuen lana: *Vocabulario de palabras usadas en Álava...*

GUA



Vocabulario de palabras usadas en Álava...
Hitzen jatorria argitu ez ezik, ohar historiko-geografikoak eta toponimiazkoak ere bildu zituen Baraibarrek

GUA




Vocabulario de palabras usadas en Álava... euskal jatorriko hitzen bilduma

Baraibarrek, bestalde, testu zaharretan ageri ziren lekukotasunen aldean jarri zituen bildutako hitzak. Adibidez, Arabako gaztelanian ageri den *bildur* jasotzearekin batera, Gonzalo de Berceok ere badakarrella adieraziko du. Halaber, *sein-zai* hitza, «*cenzy* Araban, *cinzaya* Burgosen».

Beste batzuetan, Araban iraun duten gaztelaniaren arkaismoak ere bilduko ditu, euskaran ere iraun dutenak. Horixe da, adibidez, *tresna* hitzaren kasua, Hitako Artzipresteak ere erabiltzen zuena.

Hurrena, fonetika kasuak aztertuko ditu, Arabako *lande* (ezkurra) *glandetik* datorrena, euskararen lege fonetikoa aplikaturik: *lore, florem; landara, planta; laketu, placet...* eta abarren modura.



Vocabulario de palabras usadas en Álava... Arabako gaztelanian ageri diren hitzak bildu zituen bertan Baraibarrek

Gure bidegilea ohar zale da, folkloreaken berriemaile aparta. Ohitura eta kantak ez dira arrotz haren lanean (*puyerre, biriqui*), ohar historiko-geografikoak eta toponimiazkoak ere egoki bilduta ageri zaizkigu... Aditu eta espezialistentzat ez ezik, irakurle jakin-minarentzat ere ari da Baraibar. Gogo horren arabera da, adibidez, 1905eko argitalpena: *Palabras alavesas. Discurso leído en Bilbao el 28 de Abril de 1905 ante la Colonia Alavesa de Vizcaya por don Federico Baraibar y Zumárraga*. Bertan, bistan denez, Bizkaian diren arabarrak ditu entzule. Aurreko *Vocabulario de palabras...* hartan idatzitaketik ari da hitzaldian.

Gai beraren inguruan, bestelako ahalegin baten ondoriozkoa da 1907an RIEV aldizkarian argitaraturiko lana: «Palabras alavesas cuyas correspondientes etimológicas vascas no figuran en los diccionarios euskéricos». Bertan 106 hitz bildu zituen Baraibarrek, horietarik 28 berri dira, ez baitira 1903ko lanean agertzen. Gainerako hitz sarreretan, berriz, datu, ohar eta jakingarri berriak erantsi zituen.



EUSKARA ARABAN

Guztiz irakurtzekoa dugu lanaren atarikoa, egileak egiten duen oharra. Egindako azterketaren nondik norakoak aski garbi ageri dira bertan. Lehenik eta behin, euskarak Araban duen eremu gero baino gero urriagoaz ariko da. Aldi berean, Arabako gaztelaniara igaro diren euskarazko hitzez: «Entre las palabras usadas en Álava y no incluidas en el Diccionario de la Real Academia Española, hay muchas de procedencia vasca. Testifican tales términos el antiguo predominio del euskara, relegado hoy al pie de las sierras de Gorbea, Amboto, Arlabán, San Adrián y Elguea y á las orillas del Nervión y del Altube. Representan rezagados de la lengua desterrada, se han castellanizado para convivir con el idioma invasor, engrosando, *parce detorta*, el rico vocabulario romance. Su filiación euskara fácilmente se descubre: la castellanización apenas los ha desfigurado; la contramarca con que el romance autoriza su curso, se limita casi siempre á la imposición del acento, conservándoles

así la fisonomía y rasgos exteriores, aunque, con la pronunciación más intensa de una de sus sílabas, hayan sufrido una especie de ablación en el espíritu. Arana-Goiri, defendiendo la carencia de acento en el vascuence, dijo ya (*Lecciones de Ortografía del Euskera Bizcaino*, p.267) que “muchos nombres propios de lugar y de familia, al adaptarse al español, han venido á ser esdrújulos”. Lo mismo, en mayor escala, ha ocurrido en los vocablos vasco-castellanos que, habiendo recibido en una de sus sílabas el acento tónico, se han hecho agudos, graves ó esdrújulos conforme á la eufonía castellana».

Oraindik atariko horretan gaudela, eta bildu dituen hitzen banan-banako azterketa baino lehen, hainbat adibide emango dizkigu Baraibarrek: «*amaitaco* (contracción de *amaiketako*) “bocadillo de las once”, *asqui* “grama”, *atorra* “enagua ó saya de hilo”, *azcarrío* “arce ó moscón”, *bildurra* “miedo”, *biriqui* “chanfaina”, *bizcar* “espiña dorsal”, *burrúnzal* “cacillo de hierro”, *bustina* “arcilla”, *cacaldarro* “escarabajo”, *cenzáy* “niñera”, *cil* “ombligo”, *currunco*

“yema de huevo”, *chabola* “choza”, *charrada* “fogata”, *charta* “reyezuelo (ave)”, *chindurri* “hormiga”, *chol* “boche”, *ezcaraz* “fogón”, *gara* “brote”, *gardubera* “cardo cerraja”...».

Denetarik dago, nonbait, lan honetan, hala aletik nola lastotik, eta Odon Apraizek idatzitakoa dugu frogatuta: «Azpimarratzekoa da Baraibarrek euskal etimologia erabiltzeko duen patxada. Adibidez, 1903ko lanean badira zenbait sarrera, *nastar* (gaztelaniaz, *mezclar*), eta *otana*, adibidez, *dudarik gabe naste* eta *ogi*-rekin loturik daudenak; aldiz, latin jatorria leporatzen zaie [Baraibarren lanean]».

Hala ere, hitzak biltzen baino herren handiago egiten du Baraibarrek azterketa asmoan. Horra adibide bat:

«Inganéra [Araya], s.f. – Golondrina. En la misma localidad se usa también el castellano golondrina, y en gran parte de Álava *arandela*.

En vascuence *ainhara* (Larr. *Dic. Tril.*) tiene notable semejanza con *inganera*. Quizá

éste retiene aquel, pero pospuesto á otro elemento que podría ser su determinativo. ¿Sería *igan* = <ascender, subir> y haberse querido significar con *inganera* una especie de golondrina de vuelo más remontado: quizá el vencejo que vuela más alto? Nótese que *enada* designa indistintamente ambos volátiles. Cuanto á la *n* de la sílaba inicial no repugna suponerla primitiva de *igan* (por *ingan*) ó epéntica. (cf. las formas coexistentes *igela* é *ingela* <la rana>).»

Argitaratuak argitaratu, Baraibarrek ez zion bilduma lantzeari utzi. Etsi gabe arlo berean lanean, laugarren idazlan bat ere —artikulua, kasu honetan—, plazaratu zuen: «Nombres vulgares de animales y plantas usados en Álava y no incluidos en el Diccionario de la Real Academia Española (Decimotercia edición)». 1908ko lana da, 24 orrialdekoa, bost urte lehenago argitaratuko lanean ageri ez diren 59 hitz dakartzana. Horietarik 52 ez dira aurreko urteko lanean ere ageri: bildu berriak zituena, beraz.

«GAZABI»

Odon Apraizek ontzat eman zituen Federiko Baraibarren lanak, hala arkeologiazkoak nola arabar filologiari dagozkionak. Hala ere, zuzendu eta osatzeko modukoa dela deritzo eta, Baraibarri aitzindaritzat aitortu ondoren, bide horretan abiatzen da. Horra, esaterako, 1917an *El Ateneo* aldizkarian argitaraturiko artikulua («Suplemento al Vocabulario de palabras usadas en Álava») eta 1918an —ordurako hila zen Federiko Baraibar—, RIEVen argitaratu zen beste bat, ezagunagoa, «Gazabi» izenburuduna. Bertan, pagoaren izenaren inguruan ari da Baraibar, hitzaren arrotasuna ezin onarturik. «El árbol más hermoso y quizá más abundante de las florestas vascas, carece de nombre indígena en el vocabulario euskérico. *Fago* (en Bajo Navarro y Labortano), *pago* (en Alto y Bajo Navarro, Vizcaíno y Guipuzcoano), son representantes del *fagus* latino y han dado base á derivados y compuestos.»



Naturazale izan zen...

Gaur egun, Mikel Olano filologoaren «Pagoaren izenaz eta izanaz, palinologiaren argitan» artikulua dugu argigarri. Bertan, Campion, Baraibar, Azkue, Aranzadi eta gainerakoek pagoaren izen maileguari buruzko gogoetak aztergai harturik ari da Olano. Honela ari da artikuluaaren pasarte batean: «Haritzarekin batera euskal oiha-



ALAH

Baraibar, ilobarekin



naren “intsignia” zen arbolari izen latinoa aitortu behar izatea, ordea, ez zen, nola-bait esateko, gustuko gauza. Eta, handik edo nondik, euskal sena zuen deitura sortu nahiko zion bat edo batek. Baraibarren hipotesia, adibidez, motza izanik, ederra zen: Arabako toponimian, lau leku-izenetan ez bestetan aurkitu omen zuen *pago* osagaia, eta, Arabako basoetan landare hura hain ugari izanik, ezin konpreni zezakeen nolatan ez zen toponimian sarriago agertzen. Horrela bada, *gazabi* (“pagatxa, pago ezkur”) hitzetik abiatuta, behiala pagoaren izena *gaza* eta lehenago *basa* izan zela erabaki zuen, basa osagaia arruntean aurkitzen baita toponimian: “*basa* igual á *gaza*, suplantados por el alienígena *fago*, *pago*, resultan el nombre indígena del haya, cuya desaparición del vocabulario vascuence era verdaderamente extraña”».

Irri egingarri liteke, garaia kontuan hartzen ez bada. Mikel Olano dugu gidari: «Garai haietako testuak irakurtzerakoan, gogoan hartu behar da Sabino Aranaren eta haren segiziokoen arbuio puristek oraindik itzal handia izaten zutela; pago

izenari etorburu latinoa aitortzea, esaterako, asko zen “euskal garbitasunaren” kaltetan». Baraibar, bistan denez, garaiko semea izan genuen.

Federiko Baraibarrek atergabe jardun zuen hitz bildumak egiten. Argitalpenak ere, ikusi dugunez, bat baino gehiago egin zituen. Odon Apraizek dioenez, bazen lan guztiok eta datu gehiago biltzen dituen eskuizkribu baten kopia... Espainiako Akademian. Apraizek ez zuen hitzen aurkibidea besterik ikusi. 2.920 hitz ageri dira eskuizkribuan, 1903ko argitalpenean baino 1.398 gehiago. Kontuan hartuz *Vocabulario de palabras...* harrezkero 85 sarrera berri baino ez zegoela, Espainiako Erret Akademiaren liburutegian bide datzan eskuizkribuan 1.313 hitz gehiago!!! bildu zituen Baraibarrek. Odon Apraizen uste eta hipotesia dugu ondokoa: «Uste izatekoa da gainerakoak ere berrikusiko zituela, lan berriekin erkatuz, dela Azkueren Hiztegiarekin (1905-06) eta Lanchetas-en *Gramática y Vocabulario de Berceo*-rekin (1906), eta hortik lan haren argitalpenak ekarriko lukeen baliagarritasuna».



ALAH

Baraibar, lan-gelan


Ilustratua, humanista

Euskal Toponimia Batzordea sortu zen 1915ean eta bertako kide izan zen. 1916an batzorde hark idatzitako oinarritzko oharretan —zenbait pasartetan, bederen—, Federiko Baraibarren eskua ikusi zuen Odon Apraizek, haren «estilo nahasi ezina». Apraizen beraren esanetan, ehunka paper bidali zion Baraibarrek Euskaltzaindiari; Trebiñori buruzkoak, gehienak. Toponimia historikoari dagozkion beste zenbait jakingarri *El Ateneo* aldizkarian argitaratuko ziren 1919an.


Federiko Baraibarrek, bestalde, itzultzaile ere jardun zuen. 1886an argitaraturiko lana dugu, adibidez, *Traducciones del hebreo, griego, latín, euskaro...* Bere literaturgi-

le sena ageri du bertan Baraibarrek eta, besteak beste, euskarari gorazarre egiten dion testuan. Salaberriren itzulpen bat ere badakar lan honek, aurretik *Euskal-Erria* aldizkariaren XV. alean argitaraturikoa.

Baraibarrek euskarari zion maitasunaren froga bat gehiago dugu Suso jaunak 1919an egindako hitzaldian egin zituen hitzak. Ahaldun nagusi izan zen garaian eginak dakarzkigu gogora hizlariak: «Baraibarrek, presidentearen poltronan jarri baino lehen ere ospe handiagoa zuen humanista eta intelektualen artean herriko prentsan baino, ez zen ase hura astintzen, erabateko presidentea izan zen eta haren garaikoak dira [...] 1913ko eskola konpontzea, hari esker ez baitziren itxi Arabako eskolak;



Baraibar, itzultzaile



Traducciones... lanak, Salaberriren itzulpena ere badakar

Institutuko Liburutegi Probintzialeko katalogazio eta konpontzea; argindar hornikuntza Modelon, nekazaritza sariketa eta erakusketak, non haietako batean egin baitzuen euskaraz Arabako historia idatzian lehenengo aldiz korporazioko presidente batek».

Baraibarren delako hitzaldiak, besteak beste, euskararen gorazarrea dakar. Arabako Nekazaritza Sindikatuaren aldizkariaren 34. zenbakian argitaratu zen 1911n. Bestalde, euskarazko hitzaldiaren tirada berezia egin zen, orrialde apartean, «Aramayoar maiteak» goiburupean.



Baraibar, lan-gelan

Beste hitzaldi bat bada, interesgarria Odon Apraizen iritzian, Goikoetxea mai-suaren omenaldi gisa 1916an Federiko Baraibarrek egin zuena.

FEDERIKO BARAIBAR ETA JULIO URKIXO

Gure Baraibar hobeto ezagutzearren, eman dezagun Julio Urkixorekin izan zuen eskutitzezko harremanera jotzen dugula. Horretan, 1997an Henrike Knörr euskaltzain osoak beste Federiko baten, Krutwigen omenaldia aitzakia IKER bildumako 10. alean egindako lana har-

tuko dugu argi iturri, hau da, «Cartas de Federico Baraibar a Julio de Urquijo (1906-1917)».

Bertan, Julio Urkixoren funtsetan gorde-rik diren Federiko Baraibarren hogeita hiru eskutitz bildu zituen Knörrek, sarrera labur bat eginik eta hainbat ohar erantsi-rik. Eskutitz sortan RIEV aldizkariari buruz ari dira bi euskalariak, dela aldizka-ria sortu aurretik, dela ondoren. Bestetik, bibliografia aipamenak, bataren eta bestea- ren artikulua eta lan-asmoak, Baraibarren aitaren heriotzagatiko dolua, esker ema- teak eta miresmen zantzuak ageri dira.



Henrike Knörren lana, Urkixoren eta Baraibarren arteko gutunak aztertu zituen

Esate baterako, RIEV aldizkaria dela eta, honela ariko da Baraibar 1906ko urriaren 8ko gutunean: «... extraordinariamente agradecido me dejó su atenta carta de 6 de los corrientes, en la que me brinda el honor de colaborar en la Revista de Estudios Vascos, que va Vd. á fundar en breve». Izan ere, 1907an argitaratu zen aldizkariaren lehenengo alea...

Beste batean, Urkixok Baraibarri bidalitako liburuen berri jakingo dugu:

«... he recibido el ejemplar que ha tenido la bondad de dedicarme de las *Obras del Doctor Joannes d'Etcheberri*. Le agradezco muchísimo...».

Eskutitzen helburu behinena, ordea, elkarlana da. Baraibarrek RIEV aldizkarian kolabora dezan nahi du Urkixok. Arabarrak zalantzak izango ditu lehenengo. 1907ko urtarrilaren 8ko eskutitzean irakurri dugu ondokoa: «... me pregunta Vd. en su última postal si podré enviarle algún trabajo para el número de Abril de la Revista euskara, y á la verdad no sé que contestarle, pues antes de hacerlo desearía conocer el carácter de esa publicación. Quiero decir que como mis trabajos además de valer muy poco son muy áridos, no sé si encajarán en una Revista que aspire a ser amena y no técnica».

Hori esanik ere, ordea, berehala ari da burrunban Baraibar, lan asmoa zehaztuguran: «... solo puedo consultarle si será oportuno un estudio sobre palabras euskéricas conservadas entre el castellano de Álava y no publicadas ni en los diccionarios de Larramendi, Aizquibel y Novia de Salcedo, ni en los españoles. Para ello ten-

go ya recogidos y aun publicados algunos materiales en el *Vocabulario [de palabras usadas en Álava y no incluídas en el Diccionario de la Real Academia Española (Décimo-tercia edición) ó que lo están en otras acepciones ó como anticuadas]* que le remití; despues he tenido nuevos hallazgos de voces».

Hurrengo batean, agindutako lanaren hasikina bidaliko dio Baraibarrek Urkixori eta, era berean, baita Bilboko arabar koloniaren aurrean irakurritako testua ere, hau da, *Palabras Alavesas* goiburukoa.

Elkarlan horretan, harremana nola den estutzen ikusiko dugu hogeita hiru eskutitzetan. 1908ko uztailen, adibidez, Baraibarrek zenbait liburu eskainiko dizkio Urkixori, honek bere bibliotekara jaso ditzan. 1758ko *Eucologia ttipia*, 1773ko *Cristau dotrinaren esplicacioa*, Frantzisko Jabier de Lariz egile, eta 1821ean Jose Kruz Etxeberriak argitaraturiko *Devociozco...* dira aipatu liburuak. «Esadazu zure liburutegirako nahi dituzun eta igorriko dizkizut.» Ordurako, beste libururik ere bidalia dio Baraibarrek: *Obras inéditas ó*

poco conocidas de Samaniego, adibidez, Urkixoren eskariz arabar euskalariak erosia.

Gehienbat formalak dira, oso, eskutitzak. Tartean-tartean, hala ere, bada zenbait marmar eta halako euskalari jakin batzuekiko aipamena. «Me hizo mucha gracia el incontable aplicado a Dogson. Como lo he tenido aquí dos veces, conozco al fogoso vascófilo, y le temo como la lumbre. De su trato saqué la impresión de que el ser más fastidioso de la creación es un sabio á todas horas y sin intermitencias de ninguna clase».

Beste batean ere tartean izango dugu Dogson. 1908ko apirilaren 24ko eskutitzean: «Le felicito por lo gallardamente que se sacude Vd. del cargante Dogson. Yo no contesto ya á sus postales. Los sabios, siempre son un poco temibles, pero ese que más parece sofista que filósofo lo es en grado de superlativo.

También me he hecho cargo de las rivalidades de Vinson y de Schuchardt. Son graciosas las pequeñeces de los grandes hombres».





Federico Baraibar, Gasteizko alkate eta Arabako ahalzun nagusia izan zen



Azkeneko eskutitzean, hogeita hirugarre-
nean, gorago aztertua dugun *Gazabi* hi-
tzaz ari da Baraibar: «... baliagarria gerta
dakizunerako, *Gazabi* hitzari buruzko
oharra bidaltzen dizut, *Vocabulario de
palabras usadas en Álava* eranskinetik ate-
ratakoa, duela gutxi bidali nion Espainiar
Akademiari, urgazle naizenez hala egitea
dagokit eta.

Balia ezazu egoki irizten diozun eran.
Surtara botatzen baduzu ere, horixe me-
rezi du-eta, nire aitatasun ilusio gabetuak
ez du minik hartuko.» Dena den, Urkixok
argitaratzea erabaki eta 1918an ikusi zuen
argia aipatu oharrak, RIEVen 9. alean...

AZKEN HITZA

Bekigu zilegi lan honetan gidatu gaituen
Odon Apraizengana jotzea azken hitzaren
garaian. Odon Apraizek bertatik bertara
ezagutu zuen Federiko Baraibar. Era be-
rean, haren lan eta eginak. Lekuko zuzena
dugu beraz, 1920ko irailean, honela idatzi
zuenean: «Obraren gainean jardun dugu,
era objektiboan; ezingo genuke hain hotz
jardun klasikoaren hitzak hain bete-betean



Federiko Baraibarren heriotza, garaiko egunkariaren azalean

dagozkion gizonaren gainean: *videbatur omnino mori non debuisse*. Azken mende erdian Arabari lotutako kultur ekintza guztien arima izan zen. Irakasle zen aldetik, *causeur* handia zen, unibertsitate gela gorenen duin, eta ezagutu genuenok

baino ez genuen estimatu ahal izan haren izaera lasaia, haren izpirituaren aldarte ona, haren erabateko oreka gauza guztietan. Urrezko kaxkarkeriaz maitemindua —harekiko, horixe baitzen Arabako bizimoduaren muina— jakintsu apal eta atseгина genuen.

1918ko otsailaren 28an hil zen, kristau bidean. Jainkoa lagun, ez ahal da haren lanaren jarraitzailerik falta izango».

1928ko urtarrilaren 2an, Eusko Ikaskuntzaren arabar ordezkariak lurraldeko euskaltzaleak bildu zituen, Arabaren euskal ezaugarriak gordetzeko lanari ekiteko asmoz. Bilera egin eta biharamunean sorturik zegoen lantegiari helduko zion batzordea: J.M. Diaz de Mendibil, J. Unzalu eta F. Landaburu ziren buru. Izena, berriz, «Baraibar Taldea».

Gaur egun, Gasteizen, DBH institutu batek Federiko Baraibar izena darama. Halaber, gure bidegilearen izena daraman kalea ere bada Arabako hiriburuan. Haren bizia, lan eta eginak betikotzeko modua dugu...



ALAH

Federiko Baraibar institutua Gasteizen

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mikel Atxagari
- Arabar Lurraldeko Artxibo Historikoari (A.L.A.H.) (Maria del Mar Masedo)
- Gasteizko Udal Artxiboari (G.U.A.) (Maria Jose Mariñas)
- Iñaki Elustondori
- Henrike Knörri (in memoriam)

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Hermínio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2792-8 (Lan osoarena)
978-84-457-2794-2

L.G.: VI-446/08

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística